

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

53/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, Emprender en Álava programaren bidez Arabako Lurralde Historikoan enpresa berriak ezartzeko Arabako Foru Aldundiak ematen dituen laguntzei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

53/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, Emprender en Álava programaren bidez Arabako Lurralde Historikoan enpresa berriak ezartzeko Arabako Foru Aldundiak ematen dituen laguntzei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jaso dezala Araban ekiteko eta enpresa berriak sortzeko laguntzen deialdietan ("Emprender en Álava" programa) egindako gastuen fakturak aurkeztuta laguntzak jasotzeko aukera -fakturak aurkeztea urtero abendu erdialdean aurreikusita dago- eta ez dadila beharrezkoa izan fakturen ordainketen justifikazioa egin arte itxarotea. Hala, hilabete batzuek murriztu ahal izango dira onuradunen finantzazio-beharrak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ireki dezala kontsulta-aldi bat Araban ekintzaileen jardura ordezkatzeko edo aldeztu duten entitate edo elkarteekin (Aje-bask, Ampea, Ganbera, Sea, Secot...). Horren helburua izango da aldaketak sustatzea 2019ko "Emprender en Álava" programaren laguntza-ildoren deialdirako, hain zuzen ere, laguntza horiek hobetu egokitu daitezkeen ekite duten pertsonen beharrezkoak, bereziki finantzarioari, epeak murrizteari, aurrerakinen analisiari, justifikazioei eta abarrei dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA